

URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

IKASTETXEA	CPM FRANCISCO ESCUDERO MKP	KODEA	012681
IRAKASGAIA	TALDEA 1 - 4	MAILA	1. – 4. MAILA PROFESIONALA

HELBURUAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
<p>Taldea 1.go maila profesionaletik 4. maila profesionalera ikasten den ikasgai osagarri bat da.</p> <p>Ikasgai honen helburua, ikasleak dituen gaitasun, ezaguera eta esperientzietara egokitzen den heziketa musikal esperientzi inguru bat sortzea da. Ikasgaiak ikaslearen parte-hartzea eta presentzia aktiboa erreztuko ditu, bertako entzute jarrera handituz, beraien interpretazioaz gain taldeko beste ikasleena entzun beharko dutelarik. Ardura partekatzen duten taldeko interpretazio baten barruan sentitzea da helburua, bakarka jotzen ohituta dauden ikasleak aberastasun pertsonala handituz eta beraien arteko harremanak handituz</p> <p>Pianoaren kasu partikularrean ikasgai honetan, talde jarduerak egingo dira: taldekako klase teoriko eta praktikoak, lehiaketa eta kontzertuko ensaioak, entzunaldi parekatuak, e.a.</p> <p>Lau eskutarako edo bi pianoetarako erreperitorioa landuko da.</p> <p>HELBURUAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lau eskutarako eta bi pianoetarako erreperitorioaren errekursoetan eta estilo ezberdinen ezagutzan sakontzea. - Norbere instrumentua obra bakoitzak exijitzen duenaren arabera menperatzea. - Taldean egiten diren ekitaldi guztiek exijitzen dituzten arauak errespetatzea eta taldean egindako interpretazioa musika eta instrumentuaren inguruko prestakuntzan funtsezko alderdi gisa baloratzea. - Uneoro entzumen polifonikoa aplikatzea norbera interpretatzen ari den bitartean, aldi berean, zati desberdinak entzuteko, eta entzuteko kalitatea pixkanaka hobetzen joateko beharrezkoa den entzumen-sentsibiltatea erakustea. - Soinu-aukera zabala eta ugaria erabiltzea, soinudoiketa taldeko beste instrumentuen eta obraren interpretazioaren beharren arabera gauzatu dadin. - Pixkanaka memoria garatzeko tresnak eta eskumenak bereganatzen eta aplikatzen joatea. - Bat-batean irakurtzeko gaitasuna garatzea. - Musikaren gaineko ezagutzak gero eta autonomia gehiagorekin aplikatzea instrumentuarekin inprobisatzeko. - Koordinazioz interpretatzea ahalbidetzen duten oinarrizko keinuak ezagutu eta gauzatea. 	<p>Hauk baloratuko dira:</p> <p>1) Lau eskutarako eta bi pianoetarako berezko erreperitorioaren interpretazioa.</p> <p>Irizpide honen helburua taldeko kide guztien interpretazio irizpidearen batasun ahalmena eta aldean arteko soinu-oreka ebaluatzea da.</p> <p>2) Bere zatia jotzen duen bitartean talde arduradun bezela egiten duen lana, taldearen interpretazioa zuzenduz.</p> <p>Irizpide honen bitartez, ikasleak partituraren gaineko ezagutza orokorra daukala eta kontzertaziorako beharrezkoak diren keinuak erabiltzen dakiela egiaztatu nahi da. Halaber, soinua, tinbrea, fraseatzea eta abarren inguruan dauzkan irizpideak ere baloratu daitezke.</p> <p>3) Dagokion taldean zailtasun gutxiko obren bat-bateko irakurketa.</p> <p>Irizpide honen helburua ikasleak testu bat irakurtzean autonomiaz moldatzeko dauzkan gaitasunak egiaztatzea da, baita irakurtzeko daukan arintasuna eta obra ulertzeko daukan gaitasuna ikustea ere.</p> <p>4) Programatutako erreperitorioari dagozkion obren ikasketa.</p> <p>Irizpide honen bitartez, talde bateko kide gisa daukan erantzukizun zentzua, taldearen barruan bere paperak daukan balorazioa eta musika-interpretazioarekiko errespetua ebaluatu nahi dira.</p> <p>5) Lau eskutarako edo bi pianoetarako erreperitorioko obren jendaurreko interpretazioa.</p> <p>Irizpide honen bitartez interpretatzen den obra jotzean, dagokion fraseatze, erritmoaren zehaztasun, soinuaren oreka, aldaketa dinamikoen eta azentuazioaren prestakuntzaz musikaren izaera eta estilora egokitzen den ebaluatzen da.</p> <p>6) Taldeko erreperitorioaren zailtasunaren arabera aurreko bakarkako prestakuntza, bakarkako</p>

<ul style="list-style-type: none"> - Pultso erritmikoaren kontzientzia garatzea eta taldeko espresio dinamikoaren ulermena bultzatzea - Alderdi erritmiko, agogiko, dinamiko eta fraseologiko ezberdinak koordinatzea. - Taldeko koordinazioaren aurretik beharrezkoa den banakako kontrola izatea. - Mailara egokitua dagoen lau eskutako edo bi pianoarako ko errepertorioa interpretatzea 	<p>espezialitatean lantzen den modura.</p> <p>Irizpide honen bitartez ikaslearen etxeko lana baloratzen da.</p> <p>7) Talde barneko jarrera arduratsua bere bakarkako eta talde barneko lana zainduz eta jarrera positibo eta laguntzaile bat mantenduz.</p> <p>Irizpide honen bitartez ikaslearen jarrera baloratzen da.</p> <p>8) Klaseetara asistentzia.</p> <p>Irizpide honen bitartez ikaslearen asistentzia baloratzen da.</p>
--	---

Edukien sekuentziak

<ul style="list-style-type: none"> -Interprete handien bertsioak entzun eta alderatzea, bertsio desberdinen ezaugarriak ikuspegi kritikoz aztertzeko. -Inprobisazioaren hastapenaren praktika - Kontzertuen eta lehiaketen ensaioak - Lau eskuetarako eta bi pianoetarako errepertorioaren interpretazioa, hurrengo alderdi teknikoak aztertuz: <ul style="list-style-type: none"> Soinu-unitatea: arnasketa, atakea, artikulazioa, erritmoa, fraseatzea, e. a. Agogika eta dinamika. Zuzendaririk gabe jotzeko beharrezko diren keinu anakrusikoak ikastea eta praktikatzea. Soinuen eta planoen oreka. Atakeen berdintasunaren garapena Pedalaren erabilera Isiltasuna interpretazioaren esparru gisa baloratzea
--

METODOLOGIA

<ul style="list-style-type: none"> - Bat-bateko irakurketa. - Bakarkako nahiz taldeko inprobisazioa. - Lau eskuetarako obra errezen interpretazioa kide batekin edo irakasle berarekin joaz. - Lan interpretatiboaren aplikazioa taldeko interpretazioetan. - Pianoarako estilo nahiz talde ezberdinen konposizioen entzumena. Horretaz gain, ahots-musika, ganbara musika eta musika sinfonikoaren entzumena. - Lau eskuetarako obrak saileko audizio ezberdinen egitarauetan. - Ikasleak erakusten duen teknika nahiz interpretazio maila egokiak direnean, eta beti irakaslearen irizpidearen arabera, lehiaketa edo eta beste musika ekitaldiren batean parte hartzea kontutan hartuko da. <p>PIANORAKO LAU ESQUETARAKO OBREN ERREPERTORIO PROPOSAMENA:</p>

BÄRENREITER PIANO ALBUM VIERHÄNDIG Ed. Bärenreiter Urtext
EASY ORIGINAL PIANO DUETS AMSCO
EIGHTEEN ORIGINAL PIANO DUETS Ed. Schirmer
EL COCODRILO DEL TECLADO Ed. Breitkopf
EMONTS Mit 4 Händen um die Welt Ed. Schott
BACH, J. CHRISTIAN Drei Sonaten Ed. Peters
BACH, J. CHRISTOPH Sonata en Do Ed. Noetzel
Sonate en La M Ed. Schott Musik International
BEETHOVEN Quinze petites dances Ed. Universal
Drei Märsche Op. 45 Ed. Peters
BRAHMS Valses Op. 39 Ed. Henle Urtext
CASTELLS I BLANQUER Records d'infantesa Ed. Casa Beethoven
CZERNY Gran sonata brillante Op. 10 Ed. Carisch Urtext
DIABELLI Quatre Sonatines Op.24, 54, 58, 60 Ed. Durand
Jugendfreuden Op. 163 Ed. Peters
Sonaten Op.32, 33, 37, 38, 73 Ed. Durand
DVORAK Slawische Tänze Op.46, 72 Ed. Peters Urtext
FAURÉ Dolly Op.56 Ed. Leduc
GRANADOS 2 Marchas militares Ed. Boileau
GRIEG Wedding day at Trolhaugen Op. 65, Nº 6 Ed. Peters
Danzas noruegas Op. 35 Ed. Peters
Dans la Grotte du roi de la montagne Ed. Bourges
Sonate en Sol m Op. 13 Ed. Durand
HAYDN Divertimento "Il maestro e lo scolare" Hob.XVIIa:I - Ed. Henle Urtext
KUHLAU 6 Sonatinen Op. 44 y Op.66 Ed. Peters
MOSKOWSKY Danzas españolas Op. 12 Ed. Peters
MOZART Werke für Klavier zu vier Händen Ed. Henle Urtext
RAVEL Ma mère l'Oye Ed. Durand
SAINT SAËNS Berceuse Op.105 Ed. Durand
SCHUBERT Ländler für vier Hände Ed. Schott
Ländler und Stücke D.814 Ed. Peters
Tres marchas militares D. 733, Op. 51 Ed. Lemoine
Polonesas, D.824, Op. 61 Ed. Peters
SCHUMANN Original-Kompositionen Op.66,85, 109,130 Ed. Lemoine
SCHÜNGELER Cancons alemanyes Ed. Schott
SZELÉNYI Húsz könnyű zongoradarab négy kézrev Ed. Música Budapest
TARÁCS Klavierstücke zu 4 Händen Ed. Universal
TCHAIKOVSKY 50 canciones populares de Rusia Ed. IMC
VILA I GUTIERREZ Toquem el piano. Vol.1 y 2 Ed. Clivis
WATERMANN Christmas Carol Time Ed. Faber Music
WEBER Original Kompositionen Ed. Peters

LAU ESKUETARAKO ERREPERTORIOA:
GARAIKIDEA ETA JAZZ

BRIMHALL'S Popular easy piano duets Ed. J. Brimhall
CHARTEUX Piano Jazz Blues Ed. Van de Veld
DENNYS Three way stretch for piano three player Ed. Novello
HIRSCHBER Duets are fun. Vol 2 Ed. Musicord Publicatios, USA
NORTON Rock duets Ed. Boosey & Hawkes
RUNSWICK Boogie duets for beginners Ed. Faber Music
VVAA Das Tasten Krokodil Ed. Breitkopf
WILLEMS Morceaux aus quetre mains Ed. Pro Musica

BI PIANOETARAKO ERREPERTORIOA

BACH, J. CHRISTIAN Sonata en Sol M Ed. Schott International
 CHABRIER 3 Valses románticos Ed. Enoch
 CHOPIN Rondó Op. 73 Ed. Peters
 DUSSEK Sonata en Fa M, Op. 26 Ed. Schott International
 MENDELSSOHN Zwei Stücke für 2 Klaviere Ed. Breitkopf & Härtel
 POULENC Sonata para 2 pianos Ed. Eschig
 Elegía Ed. Eschig
 RACHMANINOFF Fantaisie (Tableaux) Op. 5 Ed. Boosey & Hawkes
 RAVEL Sites auriculaires Ed. Salabert
 Ma mère l'Oye Ed. Durand
 SAINT SAËNS Variations Op.35 Ed. Durand
 SCHUMANN Seis estudios en forma de canon Op.56 Ed. Durand
 Andante und Variationen Op. 46 Ed. Peters
 SMETANA Sonata en un movimiento Ed. Hinrichsen

Departamentuko entzunaldietan lau eskuetarako edo bi pianoetarako errepertoria ere sartuko da.

Irakaslearen irizpidez taldeak lortutako mailaren arabera lehiaketetan ere parte hartuko dute.

EBALUAZIO INSTRUMENTUAK	KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK
<p>Taldeko ikasleak ebaluazioa jarraiaz ebaluatuko dira. Honela, etxean nahiz klase bakoitzean burutzen duten lana, jarrera, edukien barneratze prozesua, nahiz entzunaldi ezberdinetan erakusten duten interpretazio maila kontutan hartuko dira.</p>	<p>Ebaluazioa hiruhileko bakoitzaren amaieran burutuko da. Irakasle bakoitzak beharrezkoa duen froga kopurua gauzatzeko aukera izango du, beti ere bere ikaslearen helburuen lorpena balioztatzeko asmoz eta baita ere aurreko atalean aipatutako alderdi ezberdinak ebaluatzeko asmoz.</p> <p>Ebaluazioa portzentai ezberdinetan zatituko da jarraian ikus daitekeen moduan:</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Helburuen lorpen maila: 60% b) Jarrera, portaera eta etxeko-lanen prestakuntza: 40%
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK	
<p>Irakasgaia gainditzen ez duten ikasleek irakaslearen adierazpenak jasoko dituzte zein alderdi zuzendu behar duten jakin ahal izateko. Irakaslearen irizpidearen arabera froga praktikoren bat burutzea proposatu ahal izango da, edo eta ebaluazio horren edukiak hiru hilekoan berrikusi ebaluazio jarraiaz.</p>	

OHARRAK

Irakaslearen irizpidea kontutan hartuko da taldeko ikaslegoa antolatzeko orduan. Honela, irakasgaiaren ezagutza kondiziorik onenetan eman ahal izango da ikasle bakoitzaren trebetasunak nahiz gaitasunak funtsezko oinarritzat hartuta.

Helburuak, edukiak, metodologia eta ebaluazio irizpideak era orokorrean ezarrita daude sail honek lau mailetarako baliogarriak direla ulertzen baitu.